

BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4989

EBAZPENA, 2024ko urriaren 17koa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko maiatzaren 16ko Aginduan jasotako dirulaguntzen onuradunen zerrenda. Agindu horren bidez, nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko laguntzetarako deialdia egiten da 2023. ekitaldirako, martxoaren 24ko 45/2020 Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko maiatzaren 16ko Aginduaren bidez, nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko laguntzetarako deialdia egin zen 2023. ekitaldirako, martxoaren 24ko 45/2020 Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren ebazpen bidez eskatutako laguntzak esleitu dira, nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko laguntzei buruzko martxoaren 24ko 45/200 Dekretuak 14. artikuluan xedatutakoa betez.

Horrela, onuradunen ebazpenak jakinarazi ondoren, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikuluko bigarren paragrafoko 2. apartatuan aurreikusitakoarekin bat etorrita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea, denek jakin dezaten, 2023ko maiatzaren 16ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda. Agindu horren bidez, nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko laguntzetarako deialdia egiten da 2023. ekitaldirako, martxoaren 24ko 45/2020 Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz. Zerrenda ebazpen honen eranskin gisa gehitu da.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 17a.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria,
JOSEBA ANDONI TERREROS LUENGAS.

2024ko urriaren 31, osteguna

ERANSKINA

Espediente erreferentzia	Onuradunak	Proiektua	Laguntza (eurotan)
00002-ATT2023-DA	Ribartayo S.C.	Ostatuko teilatua konpontzea.	609,84
00001-ATT2023-DA	Jose Antonio Ugarte García	Ostatua berritzea.	Atzera egitea.
00003-ATT2023-DA	Bodegas Gomez de Segura	2023ko sasoiko langileentzako ostatu-ekipamendua.	Atzera egitea.